



Liburuaren Eguna izanen denez, Eguesibarko Liburutegiak helduak eta haurrak gonbidatzen ditu lehiaketa hauetan parte hartzera.

Helduak: "NARRAZIO LABURREN LEHIAKETA"

OINARRIAK:

1. Parte-hartzaileak: Eguesibarren erroldaturik dauden 14 urtetik gorako auzokideak aurkezten ahalko dira lehiaketan.

2. Narrazio laburraren ezaugarriak:

- Narrazio laburrek gai librea izanen dute, baina Eguesibarra loturik egon beharko dute.
- Parte-hartzaile bakoitzak hiru narrazio labur aurkezten ahalko ditu gehienez, gaztelaniaz edo euskaraz.
- Aurkezten diren narrazioek ez dute beste lehiaketa batzuetan sariturik egon beharko.
- Narrazio laburrak ez du 120 hitz baino gehiago izan beharko.

3. Aurkezteko modua eta epeak: Lehiaketan parte hartzeko, interesdunek helbide elektronikoa honetara igortzen ahalko dute testua: biblioteca@egues.es. Era berean, Olazko eta Sarrigurengo Liburutegietan aurkezten ahalko dute astelehenetik ostiralera, apirilaren 16 arteraino.

Jatorrizko lanak bi artxibo izan beharko ditu:

- Liburutegian berean aurkezten bada: artxibo batean narrazio laburraren testua eta izenburua agertu beharko dira, eta egilearen goitizena egonen da hartan. Bigarren artxiboan gutun-azal itxi batean aurkeztuko da, bertan goitizena agerian. Gutun-azalaren barnean, egilearen datu pertsonalak agertuko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa baliagarri baten helbidea.
- Jatorrizko testua posta elektronikoa bidez igortzen bada: era berean, bi artxibo erantsi beharko dira. Lehenbizikoaren izena "Narrazio laburraren



izenburua eta egileak hautatutako goitizena" izanen da, eta testua izanen du.
Bigarrenaren izenburua egilearen goitizena izanen da, eta hantxe egonen dira
egilearen datu pertsonalak.

4. Epaimahaia: Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Liburutegiko zinegotzi ordezkaria, Kultur Alorreko zinegotzia eta Liburutegietako hiru langileak edo horien ordezkatzeko hautatu diren pertsonak.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izanen da. Epaimahaiak eskubidea izanen du sariak eman gabe uzteko, bere irudiko, aurkezten diren narrazio laburrek behar bezalako merezimendurik ez badute, edo, bestela, oinarri hauetako baldintzak betetzen ez badituzte.

Epaimahaiak eskumena izanen du beti oinarri hauetan ez dagoen gertaera ororen gainean ebazteko.

5. Sariak: Bi sari egonen dira (gaztelania eta euskara): 70 euroko txartelak, La Valeta (Erripagaina) liburu-dendan gastatzeko.

-Sari banaketa: Apirilaren 23an 17:30ean ikuskizun bat izanen da FAZeko udal karpan. Jarraian, narrazio laburren sariak eta orri-markatzaileak emanen dira.

Haurrendako: "ORRI-MARKATZAILEEN LEHIAKETA"

OINARRIAK:

1. Parte-hartzaileak: Eguesibarren errolaturik dauden 3 eta 13 urte bitarteko haurrak aurkezten ahalko dira lehiaketan.

Hiru kategoria egonen dira: 3 eta 5 urte bitartekoa, 6 eta 8 urte bitartekoa eta 9 eta 13 urte bitartekoa.



2. Orri-markatzailearen baldintzak:

- Gaia librea izanen da.
- Haur bakoitzak orri-markatzaile bakarria aurkezten ahalko du.
- Materiala: errotulagailuak, tenperak, argizariak...
- Lehiakideek beren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa jarri beharko dituzte.

3. Epeak: Narrazioak Olazko eta Sarrigurengo Liburutegietan aurkezten ahalko dira, astelehenetik ostiralera, apirilaren 16a arte.

4. Epaimahaia: Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Liburutegiko zinegotzi ordezkaria, Kultur Alorreko zinegotzia, Kultur Alorreko teknikaria eta Liburutegietako langileak.

5. Sariak: Hiru sari egonen dira: Kategorietako bana: 35 euroko txartelak, hain zuzen, Eguzki liburu-dendan (Sarriguren) gastatzeko.

-Sari banaketa: Apirilaren 23an 17:30ean ikuskizun bat izanen da FAZeko udal karpan. Jarraian, narrazio laburren sariak eta orri-markatzaileak emanen dira.

BI LEHIAKETEN OINARRI KOMUNAK:

6. Baldintza orokorrak:

- Eguesibarko Udalak eskubidea izanen du parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona oro kanporatzeko, bai eta lehiaketa behar bezala erabiltzen ez dutenak ere.
- Debekaturik dago parte-hartzaileek elementu pornografikoak, sexualak eta desagokiak erabiltzea, baldin eta pertsonaren irudia edota ohorea urratzen badituzte.

7º.- . Datu pertsonalen babesa



Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Eguesibarko Udalaren fitxategi batean sartzeko. Datu horiek helburu hauetarako erabiliko dira soilik: txapelketa kudeatzeko, irabazleekin harremanetan sartzeko eta lehiaketako beste edozein gai lantzeko.

Parte-hartzaileek bermatu eta egiaztatzen dute bere informazio pertsonala egiazkoa, zehatza, indarrekoa eta benetakoa dela.

Datuen titularrak eskubidea izanen du datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta deuseztatzeko. Horretarako, biblioteca-liburutegia@egues.es helbidera idatzi beharko du, bere NANaren kopia edo identifikazio dokumentua erantsirik.

8. Eskubideen titulartasuna:

Saria behin onarturik, irabazleek obrak ustiatzeko eskubide guztiak emanen dizkiote Eguesibarko Udalari, eta, zehazki, obra horiek erreproduzitzeko, zabaltzeko eta jendaurrean jartzeko eskubidea. Izan ere, hori guztia gaur egungo zabalkunde oro erabiliz egiten ahalko du Udalak, besteak beste: material grafikoak, ikus-entzunezkoak, publizitate alorreko baliabideak, Internet eta xede komertzialik ez duten gizarte sareak. Nolanahi ere, obran egilearen izena agertuko da.

9. Beste arau batzuk

Lehiaketa hauetan parte hartu nahi izanez gero, parte-hartzaile guztiek onartu beharko dituzte oinarri hauek, bai eta lehiaketatik atera litezkeen gai ororen gainean ebatzitakoa ere. Izan ere, oinarriak onartu ezean, parte-hartzailea lehiaketatik kanpo geldituko da, eta, horren ondorioz, **Eguesibarko Udalak** ez du pertsona horrekin lehenago hartutako betebeharririk ere bete beharko.

Eguesibarko Udalak eskubidea izanen du beti edozein unetan lehiaketaren sisteman edo antolakuntzan nahi beste aldaketa egiteko. Era berean, hasi baino lehen bertan



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA



behera uzten ahalko du lehiaketa, baldin eta bidezko arrazoi batengatik halakorik erabakitzen badu, eta ez du horregatik inolako erantzukizunik izanen. Halere, aldaketa horiek webgunetik eta beste komunikabide batzuetatik iragarriko dira. Ahal den guztia egingen da aldaketa horiek parte-hartzaileei kalterik ez egiteko eta parte-hartzaileen artean aukera desberdintasunik ez sortzeko.